

ZELAN I ZAPI DETU GARRAI O PUBLIKOAREN BAIMENAK MODU TELEMATIKOAN

Garraioekin egin beharreko izapide telematiko guztietarako, sinadura elektronikoko bat eduki behar da, garraio-baimenaren titularraren izenean, pertsona fisikoa edo juridikoa izan.

Sinadura elektronikorako hainbat aukera daude. Ezagunenak hauexek dira: IZENPE, NAN digitala eta Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalak emandakoa (Estatuko Ogasunean, Moyua plazan, Gizarte Segurantzaren, Kale Nagusian, 89. zenbakian edo Gobernuaren Ordezkariordeztan, Elkano kalean).

"AUTOFIRMA" programa deskargatu eta instalatu behar da sinadura elektronikorekin jarduteko, bai NANarekin bai IZENPERekin. "AUTOFIRMA" PROGRAMA DESKARGATU ETA INSTALATU BEHAR DA EDOZEIN SINADURA ELEKTRONIKOAREKIN JARDUTEKO.


AUTOFIRMA helbide honetan deskargatzea dago: <http://firmaelectronica.gob.es/Home/Descargas.html>

AUTOFIRMA deskargatu eta instalatu ostean, izapideak egiteko gomendatutako nabigatzaile CHROME da

Eskabide berri bat hasteko, kontsultatzeko edo hasitako espediente baten edozein izapide egiteko, hemendik sartu behar da:

<http://apps.bizkaia.net/TTWB>

Googlen "Bizkaiko Garraio Ataria" bilatuz ere sar daiteke



- "Laguntza" aukeran, eskabide mota bakoitzerako behar diren prozedurak eta dokumentazioa kontsulta daitezke. Gure kasuan, interesatzen zaizkigun prozedurak "salgaien eta Baimenen Atalarenak" dira.

- "Garraio publikoaren baimenei buruzko izapide guztiak (txartelak)" aukeran sartu behar da, hasteko, kontsultatzeko edo dokumentazio berria gehitzeko.

Hurrengo pantailan aukera hauek agertuko zaizkigu:



ESKATU ZURE GARRAI O BAIMENA (TXARTELA) Hemen hasi beharko da edozein motatako espedientea, lehen urratsa den tasa ordaintzetik hasita.

BETE ZURE BAIMEN ESKAERA. Espediente bat hasita badago eta kontsultatu edo dokumentazioa gehitu nahi bada errekerimendu bati erantzuteko edo erabiltzailearen ekimenez, hemen sartu behar da. Sustapen Ministerioan

oraindik espedientea hasi gabe badago ere, dagoeneko tasa ordaindu bada hemendik ere sartuko da.

TASA ORDAINDU IZANAREN EGI AZTAGIRIA ERANTSI. Dagoeneko ordaindutako tasaren egiaztagiria, bankuan edo ordainketa-pasabidean, eskaneatu egin behar da eta 2 aldiz erantsi, lehenengoa Aldundiaren orrian eta bigarrena espedientearen aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera. Espediente bat hasi badugu eta falta zaigun bakarria tasa Aldundiaren orrian eranstea bada, sarrera hau erabiliko dugu.



ESPEDIENTE BAT HASITA DAUKAGUNEAN ETA KONTSULTATU EDO DOKUMENTAZIOREN BAT ERANTSI BEHAR DUGUNEAN OSO GARRANTZITSUA DA "ZURE BAIMEN-ESKAERA OSATU"TIK SARTZEA.

Zure garraio-baimena eskatutik sartzen bagara, tasa berri bat sortuko dugu.

TASAK. BEHARREZKO INFORMAZIOA

Tasa bakarria dago espediente bakoitzerako, eta espediente bakoitzak tasa bat du. Tasa horrek, zerbitzu kopuruaren arabera, zenbateko bat edo beste izango du.

Adibidez, garraio-txartel batean ibilgailu 1 ordeztu behar badut, 23,50 €-ko tasa 1 ordainduko dut. Aldiz, baimen batean 4 ibilgailuren inskripzioa egin behar badut, tasa bakarria ordainduko dut: 94€ (23,50x4 = 94€)

Tasak beti garraio txartelaren titularraren izenean joan behar du, pertsona fisikoa zein juridikoa izan.

Bi aukera daude tasa ordaintzeko. Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen bidez telematikoki, edo T-02 ereduarekin lankidetzan ari den banku-erakunde batean dirua sartuz. Nolanahi ere, tasaren ordainagiria gorde beharko da, ondoren espedienteari erantsi behar zaiolako.

Ordainketa telematika eginez gero sistemak hau bezalako ordainagiria emango digu:

Igorlearen deskribapena Descripción del Emisor		Diputación Foral de Bizkaia	
Ordainagiriaren deskribapena Descripción del Recibo		No tributarios y otros ingresos	
EZO - Erreferentzia Zerbaki Osoa NRC - Número de referencia completo		30350000198928E1E2A463	
Diru-sarreraren eguna eta ordua Fecha y hora del ingreso		19-01-2017 [16:58:44]	
Erakunde kodea Código de entidad	-3035	Bulego kodea Código de oficina	INTERNET
Ordainketa-gutuna Carta de Pago		Bilketza prozedura Kodea (BPK) Código Procedimiento de Recaudación (CPR)	8050794
Igorzte-entitatea Entidad emisora	04800000-050	Erreferentzia Referencia	0177000147677
		Identifikazioa Identificación	000000
		Zenbatekoa Importe	EUR **** 22,50


Hau da bete beharko dugun erreferentzia zbk sistemak eskatzen duenean

T-02 zenbakiarekin bankuan sartuz gero, ezinbestekoa da erakundeak tasa mekanizatzea, bestela ezingo bailitzateke izapidearekin jarraitu.




Hauxe da bete beharko dugun erreferentzia zbka sistemak eskatzen duenean


Behin tasa ordainduta, Sustapen Ministerioaren egoitza elektronikora bideratuko gaitu programak.



Tramitación electrónica sakatuta abiaraziko dugu izapidetzea


Hurrengo pantailan zelan aurkeztuko duzun eskaera aukeratu beharko duzu.



 **Ordexkaria** aukera enpresaz kanpoko gestoriek edo elkarteek egiten dituzten izapideetarako baino ez da. Enpresaren administratzaile edo ahaldun batek Titularra aukera markatu beharko du, eta enpresaren sinadura elektronikorekin lan egin..

Une horretan sinadura elektronikoa eskatuko du, eta sinadura horrek titularraren izenean egon beharko du. Pertsona juridikoen sinadura elektronikoa ere haien izenean egon behar du.

Hurrengo pantailan aukera hauek aukeratzeko ditugu PAÍS VASCO/BIZKAIA/DIPUTACIÓN FORAL BIZKAIA




Eskaera mota aukeratuko dugu honako hauek kontuan hartuta:

- Tramitar expedientes. Espediente berri bat hasteko
- Subsanan / Adjuntar documentación dagoeneko hasita dagoen espediente bati dokumentazioa gehitzeko erabiltzen da, bai errekerimendu bati erantzuteko, bai jasota egon behar duen edozein dokumentazio eransteko..



Gogoratu behar da TRAMITAR EXPEDIENTESEK izapidetzeak garraio-baimenekin zerikusia duen edozein kudeaketaren espedientearen hasierari egiten diola erreferentzia..




Hurrengo orrialdean, garraio-baimenaren motaren arabera aukeratuko dugu. Merkantziak, autobusak, osasun-zerbitzuak edo bestelakoak




TAXI eta VTC baimenei lotutako izapideak "Expedientes otras autorizaciones" atalean daude

"Otras solicitudes" atalean honako espediente hauek daude. **Adscripción y desadscripción de gestor del transporte eta sustitución de vehículo por avería.**



Hurrengo orrialdean espediente mota guztien artean behar duguna aukeratuko dugu, bai Autobusak atalean:



Salgaiak atalean:

The screenshot shows the 'SEDE ELECTRÓNICA' website interface. The main navigation bar includes the Spanish government logo and the text 'SEDE ELECTRÓNICA'. Below this, there is a breadcrumb trail: 'Inicio > Áreas de actividad > Transporte terrestre > Gestión de las autorizaciones de transporte interior'. The page title is 'Gestión de autorizaciones de transporte'. On the left, there is a sidebar with a 'Tributar' section and a 'Tramitar expedientes' section. The 'Tramitar expedientes' section is expanded to show 'Expedientes autorizaciones mercancías' with a list of options: 'Alta de nueva autorización', 'Inscripción de nuevos vehículos', 'Cambio de domiciliación de la autorización', 'Descripción de vehículos', 'Rehabilitación de la autorización', 'Renuncia de la autorización', 'Sustitución de vehículos', 'Transmisión de todos los vehículos de la autorización', and 'Transmisión de autorización'. The main content area contains a list of services: 'Alta de nueva autorización', 'Inscripción de nuevos vehículos', 'Cambio de domiciliación de la autorización', 'Descripción de vehículos', 'Rehabilitación de la autorización', 'Renuncia de la autorización', 'Sustitución de vehículos', 'Transmisión de todos los vehículos de la autorización', and 'Transmisión de autorización'. On the right, there are buttons for 'Desconectar' and 'Cambiar Idioma'.

Edo Taxi, VTC baimenatarako (“Expedientes otras autorizaciones”)

The screenshot shows the 'SEDE ELECTRÓNICA' website interface. The main navigation bar includes the Spanish government logo and the text 'SEDE ELECTRÓNICA'. Below this, there is a breadcrumb trail: 'Inicio > Áreas de actividad > Transporte terrestre > Gestión de las autorizaciones de transporte interior'. The page title is 'Gestión de autorizaciones de transporte'. On the left, there is a sidebar with a 'Tributar' section and a 'Tramitar expedientes' section. The 'Tramitar expedientes' section is expanded to show 'Expedientes otras autorizaciones' with a list of options: 'Alta de autorizaciones', 'Baja de autorizaciones', 'Expediente conductores de terceros países', and 'Otras solicitudes'. The main content area contains a list of services: 'Alta de autorizaciones' and 'Baja de autorizaciones'. On the right, there are buttons for 'Desconectar' and 'Cambiar Idioma'.



Gogoratu, ordezenaren kasuan, ibilgailu berriaren matrikula sartu behar dela.



EGOITZA ALDAKETA. Baimen baten egoitza-aldaketa bat egin ahal izateko, lehenik eta behin Estatuko Agencia Tributarian helbidea aldatu behar da, Foru Ogasunean agertzen den zerga-egoitzarekin bat etorri beharko duena. Bestela, sistemak ez du ahalbidetzen izapidetzea.

Agencia Tributarian aldaketa egiteko honela egin daiteke:

Pertsona fisikoak: telefonoz, honako zenbaki honetan:

901.200.345

Edo Agencia Tributariaren.egoitza elektronikoan, sinadura elektronikoa erabilia

Pertsona juridikoak: Agencia Tributariaren web orrian

WWW.AGENGIATRIBUTARIA.ES

Izapidetzea ezberdina da kasuaren arabera:

EGOITZA UDALERRI BERAREN BARRUAN ALDATZEN BADA:

Ez da beharrezkoa espediente bat egitea, ezta tasa bat ordaintzea ere. Nahikoa da Agencia Tributarian eta Foru Ogasunean helbidea aldatzea, eta gero gurekin harremanetan jartzea aldaketa egin dezagun.

EGOITZA UDALERRI BATETIK BESTERA ALDATZEN BADA:

Bi ogasunetan aldaketa egin ondoren egoitza aldatzeko espedientea hasi behar da.

Eskatzen dizkizuten datuak sartzen joango gara, eta automatikoki espediente-zenbaki bat sortuko da 4805/xxxxx/20xx formatuarekin. Bertan, 4805 erakundearen zenbakia da, xxxxx espedientearen zenbakia, eta 20xx izapidetze-urtea da.

Garrantzitsua: merkantzien edozein ibilgailu grabatzean ez da inoiz plaza-kopurua grabatu behar, nahiz eta horretarako laukitxo bat egon. Bestela, ibilgailu mistotzat hartuko du, eta hutsegite bat sortzen digu salgaien garraioarekin bateraezina dela iritzita.

Akats hori saihesteko, eta Madrilera fax bat bidali behar ez izateko ibilgailua aldatzeko eskatuz (horrek atzerapen handia dakar espedientean), ez grabatu plaza-kopurua eta ez jarri arin misto edo astun misto gisa, baizik eta "salgai arin" edo "salgai astun" gisa, karga erabilgarria 3.500 kg-koa edo txikiagoa edo 3.500 kg-koa den kontuan hartuta.

Datuak grabatu ondoren, espediente motaren arabera beharrezkoa den dokumentazioa erantsi behar da

Erantsi beharreko dokumentu ohikoenak:

Tasa beti erantsi behar da.

Ibilgailua oraindik matrikulatu gabe badago, azterketa teknikoko txartela erantsi beharko da. Matrikulatuta badago espedienteen matrikula-zenbakia agertzea nahikoa izango da, DGTan kontsulta dezakegulako.

Ibilgailu astuna izanez gero, salerosketa faktura erantsi beharko da, eta leasinga badago, ibilgailuaren identifikazioarekin ere bai.

Garraioaren kudeatzaileak enpresaren kapital sozialean parte hartzen badu, bazkideen erregistro-liburua aurkeztu beharko du.

DOKUMENTU GUZTIAK ESKANEATU ETA ESPEDIENTEARI ATXIKITU BEHAR ZAIZKIO

Espedientea bete ondoren, gure aplikaziora iritsiko da. Hortik berrikusi egingo dugu, edo falta dena eskatu, edo eskaera onartu edo ukatu egingo dugu.

ADI: ORAIN EZ DAGO PAPEREZKO GARRAIO TXARTELI K. Beraz, dagoeneko ez da etorri behar horiek jasotzera, eta ez da baimenaren egiaztagiririk eraman behar ibilgailuan.




Baimenaren, indarraldia, matrikulak eta abarren datu guztiak egiaztatzeko, REGISTRO DE EMPRESAS Y ACTIVIDADES DE TRANSPORTE delakoan (<https://apps.fomento.gob.es/crgt/servlet/ServletController?modulo=datosconsulta&accion=inicio&lang=es&estilo=default>). Kotsultatu behar da. Espedienteen eskatu dena erregistro honetan jasota badago, ez da bestelako egiaztagiririk behar.


GARRANTZITSUA



GARRANTZITSUA



GARRANTZITSUA



JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOEN POSTONTZIA

Edozein espediente telematikoki izapidetzeak esan nahi du administrazioaren eta erabiltzailearen artean trukutzen den edozein komunikazioa telematikoki egingo dela. Administrazioak errekerimendu bat edo edozein zuzenketa-mota izapidetuz gero, erabiltzaileak EZ DU GUTUNIK JASOKO ETXEAN. Komunikazio guztiak postontzi elektronikoa batean jasoko ditu.

Komunikazioak jasotzeko, hurrengo helbidera jo beharko da, sinadura elektronikoaren bidez, bai pertsona fisikoen kasuan, bai pertsona juridikoen kasuan.

https://sede.administracion.gob.es/PAG_Sede/HomeSede.html (Punto de Acceso General (PAG))

Hemen edozein unetan kontsultatu, onartu edo baztertu ahal izango dituzu jakinarazpenak

The screenshot displays the homepage of the Spanish General Access Point (Punto de Acceso General). The browser window shows the URL https://sede.administracion.gob.es/PAG_Sede/HomeSede.html. The page features the 'administracion.gob.es' logo and a search bar. A navigation menu at the top includes 'La Sede Punto Acceso General', 'Servicios Electrónicos', and 'Mi Carpeta', with 'Mi Carpeta' circled in green. The main content area contains a welcome message, a list of services, and a 'Destacamos' section with links to 'Acceso al Punto de Acceso General', 'Agencia de Protección de Datos', 'Boletín Oficial del Estado', and 'DNI Electrónico'. The system tray at the bottom shows the date and time as 12:01 on 23/02/2017.



Azkenik, jakinarazi nahi dizuegu postontzi bat ireki dugula izapidetze elektronikoari buruzko kontsultak eta zalantzak bidali ahal izateko edo gure atalari buruzko beste edozein gairi buruz.

Postontziaren helbidea:

autorizaciones.transporte@bizkaia.eus